

BILERA MOTA: GAZTEEKIN BILERA

ZENBATGARREN SAIOA : 9

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2017-11-30	19:00	21:20

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Agurtzane Lekuona, Enekoitz Markos, Jon Del Olmo, Eneritz Arbelaitz

Kopurua: 7

<18 urte: 1	Emakumeak: 4	Euskaraz: 7
19-23 urte: 4	Gizonezkoak: 3	Elebitan:
14-28 urte: 2		
<29 urte: 0		


AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz


Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA


ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bilerara bertaratutakoa aurkeztu eta bileraren egitura aurkeztu da.
2	Azalpenen atala	<p>-Udala zer den azaldu da. Zein eskumen eta betebeharrak dituen, zeintzuk ez dituen.</p> <p>-Aurrekontuak: 2018ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.</p> 
3	Gazteen lehentasunak	Duela bi urte terdi gazteen diagnostikoa egin zenean ateratako beharrak aztertu dira:

<p>aztertzen</p>	<ul style="list-style-type: none">-Etxebizitza-Zerbitzuak-Lana-Sexualitatea eta feminismoa  <p>Behar horiek bere horretan dauden aztertzeko, hainbat kontzeptutako kartulinak panel batzuetan kokatu dira.</p> <p>Ariketa bat: guztien artean erabaki da zeintzun diren ustez Oiartzungo gazteen lehentasun edo beharrak:</p> <ul style="list-style-type: none">-Jaiak: gazteak mugitzen eta azaltzen dira parranda dagoenean.-Kontsumoa: drogen kontsumo asko dagoela aipatu da.- Sare sozialak: dependentzia handia dago. Gazteria lotan/tontotua utzi du. <p>Aipatu da gazte lokalen moda dagoeneko ez dagoela lehen bezala. Bestalde, asteburutan gazteak arratsaldean etxetik ez dira irteten.</p> <p>Bigarren ariketa izan da bertaratutakoen hiru lehentasunak zein diren jakitea. Horretarako bakoitzak hiru kometxa hartu eta kartulinetan kokatu ditu. Horren arabera lehentasunak hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none">-Harremanak: gazteen arteko harremanak garrantzia handia du bertaratutakoentzat. Landu beharreko gaia dela argi dute guztiek.-Aisialdia: eskaintza badago Oiartzunen baina gazteentzako ez. Gazteek ere ez dute sortzen. Bi lehentasun hauei dagokionez, aipatzen da gazte eguna dela egun bakarra gazte ezberdinak batu eta harremantzeko. Oso sartua dugula egun hau, baina gainontzeko urtean ez da helburu hori betetzen.-Kultura: herrian gauza asko daude, baina gazteentzat ez. Kontzertuak ere falta dira. Auditorioa egitean behar hau ere bete beharko litzateke. Eragileen inplikazioa ere beharrezkoa izango da kudeaketan.-Hezkuntza: orokorrean hezkuntzak duen garrantzia azpimarratzen da, modu zabalean ulertuta. Gazteen artean hezkuntza/kultura falta somatzen dute, ezjakintasuna gai askoren
------------------	--

		<p>inguruan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikadura burujabetza: ez gara burujabeak eta horrek osasunean, kontsumismoan, ingurumenean eragiten du. - Kirola: azpiegitura aldetik Oiartzun ongi dagoela aipatu da, frontoi asko, kiroldegia ongi dago... - Lana: ikasketak bukatu ondoren baldintza duinik gabeko lanak soilik daude gazteentzat. Oso baldintza txarretan lan egiteko aukera, edo lanik ez. - Etxebizitza: lanik ez dagoenez, etxebizitza eskuratzeko aukerarik ere ez. Kultura oraindik txertatua gurasoen etxean bizi eta dirua ahorratzean etxetik joatea. Eredu desberdinen inguruan hitz egin da, baina horretarako kulturarik badagoen eta prestatuta ote dagoen zalantza dago. 
4	Zer egin daiteke lehentasun horiei heltzeko?	<p>Guztien artean eztabaida egin da eta egin beharrekoak hiru ataletan banatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - UDALAK EGIN BEHARREKOA · Antolatuta dauden gazteei lagundu baliabide eta diru-laguntzekin · Kultur eskaintza aztertu eta gazteentzat gehiago bideratu daitekeen begiratu

- GAZTEEK EGIN BEHARREKOA
 - Harremanak lantzeko toki batean biltzeko bideak landu (gaztetxea hor dago)
 - Aisialdia, jaiak, harremanak lantzeko ekintzak antolatu. Gaztetxoentzat ere ereduak sortu, haiek ondoren jarrai dezaten
 - Sare sozialak eta jaia erabili gazteen kontzientzia lantzeko
- ELKARLANEAN EGIN BEHARREKOA
 - Etxebizitza: gazteek eraduaren inguruko lanketa egin (jabetzaren inguruan) eta udalak alternatibak aztertu/landu.
 - Gaztetxia: udalak utzi eta gazteek gazteen topaleku bihurtu
 - Alternatibak sortu egungo arazoak iraultzeko: kontsumoa, sare sozialen dependentsia eta jaietatik kanpora ere gazteen arteko harremanak eta aisialdia lortzeko.





6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.	
		Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,86
		Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9,29
		Bileran erabili den metodologia	8,67
		Gazteen asistentzia	3,43
		Gazteen partehartzea	7,71
		Saioa probetxugarria izan al da?	8,86
		Egunaren egokitasuna	7,57
		Orduaren egokitasuna	8,00
		Lekuaren egokitasuna	8,57
		Denera bataz beste	7,88
		Guztiak modu honetako saio batera etorriko zirela baieztatu dute.	